

**SACAMANTECAS / THE HARVESTER** EMANALDI BEREZIA - LEHIAKETATIK KANPO • **Espainia - Belgika**

David Pérez Sañudo (zuzendari eta gidoilarikide)
Antonio de la Torre, Patricia López Arnaiz, Josean Bengoetxea, Haizea Carneros (antzezleak)
Olmo Figueredo (ekoizlea)

Sañudo: “Egiazkotasuna bilatu dugu, espektakularizazio errazean erori gabe”



GARI GARAIALDE

Antonio de la Torre, Patricia López Arnaiz, Haizea Carneros, David Pérez Sañudo zuzendaria, eta Josean Bengoetxea.

SERGIO BASURKO

Sacamantecas ezizenak beldurrezko ipuin baten oihartzuna du. Belaunaldiz belaunaldi, haurrak izutzeko erabili izan den izena da, baina haren atzean benetako gizon bat dago: Juan Díaz de Garayo, XIX. mendeko Arabako nekazari bat.

David Pérez Sañudok hamar urte behar izan ditu *Sacamantecas* pantailara eramateko. Sail Ofizialeko proiektio berezietan aurkeztutako filmak XIX. mende amaierako Araba du agertoki, III. Karlistaldia azkenetan denean eta Gasteiz inguruan hainbat emakume hilda agertzen direnean. Zuzendari bilbotarrak, ordea, ez du

hiltzailearen kondaira berreraiki nahi izan soilik. Haren inguruko gizarteari, garaiko indarkeriari eta biktimen ahotsari begiratu nahi izan die.

Istorioaren erdigunean Ángela Berrostequieta dago, biktimetako baten ahizpa. Justizia bila iritsiko da Gasteizera eta Díaz de Garayo krimenen erantzulea dela frogatzen saiatuko da. Patricia López Arnaizek antzeztu duen emakumearen ikuspuntutik, ikerketa kriminalak beste dimentsio bat hartzen du: “gizarte patriarkal batean emakumeek zuten lekua eta haien heriotzek zuten balio eskasa agerian uzten du”.

Sañudoren asmoa, hain zuzen, Sacamantecas-en mitoaren atzean

dagoen pertsonaia biluztea izan da. “Filmak mitoari jarraipena ematen dio, baina, aldi berean, mitoa zalantzan jartzen du, eta pertsonaia humanizatu nahi du”, azaldu du prentsaurrekoan. Antonio de la Torrek gorpuzten duen Díaz de Garayo ez da muntro abstraktu bat: bere familia, lana eta ingurunea dituen gizona da, nahiz eta emakumeen aurkako krimen lazgarrien erantzule izan.

Filmaren beste ardatzetako bat indarkeriaren irudikapena da. Sañudok bereziki aipatu du bortxaketaren eszena eta kamera aurrean indarkeria erakustearen inguruko erabakiak. “Zenbat erakutsi nahi dugu, no-la erakutsi nahi dugu indarkeria, zer

Buried crimes, unquiet history

David Pérez Sañudo's *Sacamantecas* resurrects a chilling chapter of Spain's shadowy past, turning the real-life crimes of Juan Díaz de Garayo, the 19th-century Alavese killer, into a gripping thriller. As the Third Carlist War draws to an end, Ángela Berrostequieta (Patricia López Arnaiz) arrives in Vitoria determined to uncover the truth behind her sister's death. Her search leads through a grim trail of murdered women, while those in power choose silence over justice. Antonio de la Torre embodies Díaz de Garayo, avoiding sensationalism, offering instead a haunting portrait in a land scarred by violence and a society where women struggle to be heard. More than a historical thriller, the film becomes an unsettling mirror of our own times. As López Arnaiz observes, violence against women remains painfully present. *Sacamantecas* brings a dark legend back to the screen, and shows why some stories refuse to stay buried.

kontatu nahi dugu Sacamantecasi buruz?”, galdetu du. Horren atzean film osoaren jarrera dago: krimena ez erabiltzea ikuslea erraz hunkitzeko edo eszena bortitzak espektakulu bihurtzeko.

“Egiazkotasuna bilatu dugu, dramatismoan edo espektakularizazio errazean erori gabe”, gaineratu du zuzendariak. Ikuspegi horrek lotura zuzena du filmaren estilo naturalistarekin. XIX. mendeko Araba ez da postal historiko gisa ageri; gerra, pobrezia eta desberdintasun sozialak nagusi diren lurraldea da. III. Karlistaldiak baliabide polizialak mugatu ditu, eta hildako guztiek ez dute garrantzia bera agintarientzat.

Euskarari dagokionez, Ramon Lazkanoren laguntza izan dute. Garai hartan Arabako iparraldean hitz egiten zen euskarara hurbil zitekeen euskara bat proposatu zuen, une askotan bizkaieraren oso antzekoa, baina aldi berean ulerterraza izan zedin. Gaztelaniak ere presentzia nabarmena du, boterearen eta administrazioaren hizkuntza gisa.

Hamar urteko ibilbidearen amaiera, hala ere, ez da samurra izan. Zuzendariak aitortu du postproduktzioa eta muntaketa izan direla prozesuaren zatirik gogorrenak, “arrasto eta zauri” ugari utzi dizkiotelako. Azken emaitzan, thrillerretik harago mitoaren atzean ezkutatutako garai baten erretratua bilatu du Sañudok. *Sacamantecas* ez da soilik hiltzaile baten istorioa; haren krimenak posible egin zituen munduari begiratzeko ahalegina ere bada.

Euskal gizartea atzo
Euskal gizartea gaur

La sociedad vasca de ayer
La sociedad vasca de hoy

La société basque d'hier
La société basque d'aujourd'hui

The Basque Society of the past
The Basque Society of the present

San Telmo Museoa

STM
San Telmo Museoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
kultura

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus

